

# JIHAD edo Gerra Santua

*Se vive y habla mucho hoy de acciones violentas, y de “guerra santa” del Islam. La actualidad mediática obliga. Se subraya, por otra parte, que la historia del Islam es una historia de paz y convivencia, indicando que es precisamente en tierras del Islam donde han convivido pacíficamente por siglos comunidades musulmanas, judías y cristianas, tanto en el Oriente Medio como en Europa. Bueno será precisar algo más esa historia*

Gaur egun sarritan aipatzen da DAESH-ek (kalifa-herri islamistak) egiten duen *jihad* edo gerra santua. *Jihad*-aren hori ez da orain gutxiko asmazioa, Koranetik bertatik bizirik dagoen termino eta hitza baita *jihad*, nahiz eta ez den beti esanahi berarekin erabili.

## **Jihad espiritual**

Arabierazko *jihad* hitzaren lehen adiera ez da gerrarena. Alderantziz, bere esanahi arruntan, hobekuntzarako norberak egin dezakeen ahalegin espiritual eta praktikoa da. Horrela, musulmanak bere fede eta portareri Allah-aren esanetara burutu nahi dituen espiritualtasuna eta biziera arautua izango lirateke *jihad*.

Ez da ahaztu behar, Islamaren baitan santutasun-ereduek beren leku estimatua izan dutela, eta Mahoma bera izan zela espiritualtasunik ederrena eskaini nahi izan zuena. Bestalde, herrialde musulmanetan askotan ikus daiteke, erlijiotasun herritarra ere nola bildu izan den santu-ospea izandakoen hilotzen ingurura. Urrutirago gabe, Ipar Afrikan eta Marokon horrelakorik maiz aurki daiteke.

Espiritualtasun horretan goragoko eta zainduagoko ahaleginik eratu nahi izan

denetan, *sufiak* eta *sufi*-elkarteak izan ditu Islamak, hau da, ortodoxia ofizialetik aitzina mistika landu dutenak, bakarka nahiz taldean: kofradietan (*tariqa*) maisuren baten gidaritzapean, eta aparteko egoitzetan, dena Jainkoaren ezagutza eta bizipen pertsonala lantze aldera.

Jihad delakoaren adiera hau, ordea, ez da gaur egun gogoan izan ohi den adiera ezagunena.

## **Jihad: gerra santua**

Islam-ak, bere historian zehar, “Gerra Santua” ontzat eman du, hau da, Islama eraso izan denean, edo beste zenbait egokieratan. Gerra Santuaren egitekoa beti da komunitate islamiarra defendatzea edo “fedegabe” politeistak Islamera ekartzea, baldintza jakin batzuen barnean.

Koranaren bigarren atalburuan daude *jihad* gerra egiteko lehen irizpideak (K 2, 190-195): “Eta egin borroka Allahren bidean, borroka egingo dizuetenen aurka, baina gehiegikeriarik egin gabe; gauza ziurra da Allah-k ez dituela gogoko gehiegikeriak egiten dituztenak. Hil itzazue nonahi aurkitzen dituzuela, eta bota itzazue bota zaituzten





lekutik. Zuen sinestearen kontra jartzea hiltzea baino larriagoa da”.

Gerra Santuaren hau ez dago Islamaren bost “Pilare” deitzen artean, eta “gerra” terminoa (*harb*) ez da erabiltzen *jihad* delakoa aditzera emateko ere. Honen esanahia zuzena honela labur daiteke: *jihad* espirituala norbera bakoitzaren betebeharra den bezala, komunitate musulmanaren betekizuna da lehen-dabizi komunitate horren segurtasuna bermatzea eta gero Koranaren arabera “Jainkoaren eta gizakion eskubide/betebehar erlijioso” denentzat segurtatzea.

Hori ahalbideratzeko ondoko arrazoiak eta urratsak daude pentsamendu islamiarrean: lehenengo datua da, jada aldarrikatuta daudela sinesgai islamiarrak (Mahomak egindako Profeta lana: *da’wa*), eta bigarren, konbertsiora lehen-dabizi deituak Eskritura Santuak dituzten sinestunak direla; horregatik, aparteko trataera emango zaie kristau eta juduei.

Akordio adostuak sina ditzakete musulmanek kristau eta juduekin, eta komunitate erlijioso babestuak izango dira hauek (*dhimmi*), erregimen islamiarraren menpean baina beren erlijio, ohitura eta zuzenbidea indarrean dituztela, eta azkenik aparteko zerga batzuk ordainduz. Akordioak tarteko gerrarik gabe, onean, egiten badira, baldintzak eramangarriagoak izan ditzakete.

Hala ere, bigarren mailako herritar izango dira.

Ez dute “idolatrek” tratu bera izango: printzipioz, halakoei konbertsioa ezartzen zaie; baina, segun noiz nola, bestelako irtenbideak ere ezagutu dituzte. Bestalde, ez dago herri idolatren islamiartzea kolpe batean egin beharrik, eta aski da konbertsio-egitasmo orokorrari han-hemen eustea, Komunitate musulmanak bere gain duen hedapenarekiko betebeharra betetzat emateko, batez ere Islama galtzaile gertatzen denean. Hori izan zen, esaterako, kolonialismoak indarrez ekarri zuen egoera berria.

Lehenagotik, eta ordutik bertatik batik bat (XII-XX. mendeetan), ia beti tresna berriagoak erabiltzen dira Islamaren zabalkunderako: Propaganda eta Misioa. Ez dira hiltzen idolatrak, eta nahiago da Herrialdeen ekonomia-aren alde lan egin, kultura islamiarra zabaldu, edo nonahi ere biziera zintzo baten bidez hitz egin eta bidea erakutsi.

XX. mendeko independentzietarako gerrak bezalaxe, gizarte islamiarraren hobekuntza, zernahi eremutan ere *jihad* dira. Zientzia edo Administrazio garbia, adibidez, Komunitatearen *jihad* jatorra dira, eskola-politika ere bai, edo osasun zerbitzuak eskaintzea. Historiako une bakoitzak izan du zegokion *jihad* modua.

**Joseba Intxausti**